

Telmo Munduate Goikoetxea

A maila • 1 saria

Telmo Munduate nauzue, San Benito Ikastolan dabilen ikasle ataundarra. Ametsak hitz, hitzak amets errealitatea erreparatu eta gure iruditeria honen alderik bortitz nahiz ederrenak hitz laudorioan islatzen saiatzen naiz.

Aurtengo honetan gure munduak pairatzen duen gaitzik ankerrenari forma eman diot, gaixotasun mentalen eta suizidioaren inguruko estigmak gainditzeko asmoz. Bakardadea, maitasuna eta gorrotoa nahasten dira hitzetan, gizarte honen alderdirik goibelena eraikitzen dutelarik. *Oihu isil* horiek entzuten saiatzeko ardura da gurea, beharbada uste baino gertuago baiditugu.



OIHU ISILAK

Martxoko arrats euritsu honek etxerako egiten duen gonbitean, eguneroko erosketak burutu bezain pronto, bizirauteko beharrezkoak ditudan lau fruitu eta pare bat garbiketa produktu ia ezin sostengatuz, etxeko portalean estali naiz. Aterki bustia nire betaurreko beltzen antitesi izanik atezainaren presentzia sumatu dut. DHLko bidalketa bat du bere eskuetan eta betiko arretaz fardeltxo niri eman dit. Niretzat omen da antza. Kartoizko kaxa marroia, hauskor hitza lau izkinetan ondo baino hobeto irakur daitekeelarik. Azkenik, isilune arrotz horren haustura gisa *"Arratsalde On Anderea"* soil baten durundia aurkeztu da. Haren hitzak lastima ezkutut batekin besarkatzen dira eta irrifar errukitsuak duela gutxi gertatutakoaren arima beltza marrazten du bere ezpain mehetan. *"Berdin"* erantzun diot nik, bosgarren solairuraino laguntzeko eskaintzari uko eginez. Begirada urrundu dut, nire betaurrekoen atzean ezkututzen diren malko gazien eroriek eszena agurtzen duten bitartean.

Igogailua madarikatuz arnasestuan igo ditut eskailerak, ezinean. Bi poltsak ezkerreko eskuan eta DHLko kaxa eskumako besoaren eta bularraren artean ondo babestuz. Laugarren solairuko haritzezko bi azken ate zabal eta dotoreek teilatupeko apalagoei bidea irekitzen diete. Antzinako Donostiako etxe hierarkikoetako neskame ni. Horrela, atea ireki bezain pronto oinak bata bestearekin biluztu eta sofan eseri naiz, erosketak armairuetan kokatzen molestatu gabe, telefonoko ahots posta leporaino betetzen duten mezuei jaramon egin gabe. Kartoizko bilgarria kontu handiz ireki eta beste kutxa bat aurkitu dut haren barruan, bigarren hau askoz apainagoa, haren hoztasunak dotorezia kontrajartzen badu ere. Marmolezko erliebe beltzak beste apaingarrien alboan gailentzen dira. Kuxtaren barrenean urre koloreko xafla karratu bat distiran, *"Gogoan zaitugu. 1984-2021"*. Haren izana kutxa honetara murrizteak erabat isildu nau. Euri tantan goibelek sabaiko leihoak bustitzen dituzten moduan nire malkoak bion argazkian irristatzen dira. Horrela, zu eta ni, edo bion artean geratzen den eremu hori azkeneko elkarriketa iskanbilatsu eta desorekatu hark beteko du betirako. Gure iragana eta geratzen

zaigun etorkizuna nahastuz. Amestuz.

Ez dizut zergatirik galdetuko. Ulertu egin nahi zaitut. Ostegun goizaldeko trumoi horretan haize bihurtzeko zure erabakia ulertu nahi dut. Errautsek erantzungo didaten esperantzan gordeko naiz. Betirako *"Agur arreba"* horren zain geratzen naiz.

Gezurren atzean

Kaleak betetzen dituzten korrikalariak eta gimnasioko atletak ateratzen den mutiko dotore eta gihartsu horrek gabonak iada atzean utzi ditugula pentsaraztera eraman naute. Hamaika eskakizun guk urte berriari, hamabi ezbehar hark guri.

Nik ere banituen nire asmoak, baina nola ez, zoritxarrez, beste behin arreba aurreratu zitzaidan. Irrifar bat post-it batean marraztu eta hozkailuan itsatsi zidan urteko lehen minutuarekin lehian. *"Hori da zure aurtengo helburua"* esan eta gure txikitako *"Altxorraren Bila"* mahai-jokoa zabaldu zuen niri begiratzuz. Gogoko ditu arrebak mezu ezkutuak. Nik aldiz nahiago hasieratik bukaeraraino araututako xake partida ixil bat.

Gaitzaren beldurra alboan izanagatik urteroko legez ospatzera deituak izan ginen arrebaren Donostiako etxera. Amen. Horrelako familia-festak ez ditudala gustuko ondo asko daki, baina ama alargundu zela bi hilabete betetzen zirela estakuru, eguberri antzerkiaren aktoretako bat izateko gonbitea onartzea beste aukerarik ez nuen izan. Aitaren heriotzaren ostean gure bizitzari normaltasun kutsua ipintzea ondo etorriko zitzaigula pentsatu zuen arrebak. Eta noski, antzerkiko zuzendaria bera, zein bestela?

Eta bere aurrean inoiz onartuko ez badut ere arrazoi apur bat bazuen. Oneski, afaria inoiz baino atseginagoa izan zen, aitaren hutsuneak zabaltzen zuen pake giroagatik agian. Gazte gineneko kontu zaharrak berritzen eta gaurko bizimodua gaztaroko gure iragan idilikoarekin alderatzen eman genion sarrera digitu berriari. Eta urteroko familia ohituren omenez, lekuz kanpoko opari banaketa ere egin genuen. Maitasun eleberri bat niretzat.

Nire bizitzaren protagonista izatetik utzi zuten momentu ezti-gozo haiek dastatu berri nituen iada eta irrifar faltsuek ez dutela betirako irauten baieztatuz, etxera itzultzeko gogo atera joko aritu zen gau guztian. Hainbeste *"Zu zer moduz?"* eta *"Lanean zer berri?"* k nekatu egin ninduten eta *"Ondo"* hitzak ezkutatzen duen gezurra hain nabarmena izan ez zedin, bat-batean altxa eta alde egin nuen bertatik.

Bizitzak gezurrak esaten irakasten digula esaten du zenbaitek. Gure errealitatearen gainbehera esperantzaren margoarekin atsekabea apaintzean datzala esango nuke nik. Gezurra gezurraren ordainetan baino itxaropen desengainatuaren aurkezle gisa erabiltzen dut. Nire makilaje partikulartzat. Hogeita hamazazpi urteko gizaseme batek eduki beharko lukeen bizitzaren gidoia osatzen dut nire gezurrekin: *"Bulegoan, tira ..., lanpetuegi baina ..., beno, lana dagoen bitartean ezin kexatuko gara"*. *"Lagunak betiko martxan. Ia denak aita eta senar perfektuaren paperean"*. Eta nire maitasun kontuak, horiek bai sekretuan izatea hobe, ezta?

PROSA

Facebook-eko profil abenturazale eta zirraragarriak balantzan jartzen ditu nire bi niak. Egunerokoa betetzen duten hitz bakartiek oso bestelakoa den bizitza kontatzen dute; pianoa eta ohe-mahaiko liburuak dira azkenaldian nire konpainia bakarrak.

Duela bi egun nire lan postua uzteko gonbita jaso nuen. Pianoaren ametsari agur esanarazi eta ikasketa arrakastatsu haiek egiteko esfortzua gerente berriaren *"eskerrik asko"* ziztrin batek errematatu du. Hamabost urtetako kontabilitate arduradunari *"ez gaude gustura zure azkeneko ekitaldiko emaitzekin eta, gainera, trebeagoa izan beharko zinateke lan-tresna berriekin"* aurpegiratuz *"hilabete bukaeran jasoko duzu finikitoa"* tirokatu zidan. Eta nik nire baitan: *"Kabroiak"*.

Pixkanaka bakardadeko gehiegizko orduen, *"mila esker, deituko dizugu"* hitzen eta nire gezurren artean bizitza ekaitzaren barnean dabilen txalupa bihurtu zait, noraezean. Iraganaren erreflexuan etorkizunik ikusten ez duen marinela ni.

Beste arratsalde batez, urtarileko egun hotz hauen omenez arrebak oparitutako azken liburuaren orriak usainduz hasi naiz. Lehen argumentu erromantikoak erakarri ez banau ere, hainbeste sarik justizia egingo dioten esperoan irakurtzen jarraitu dut, harik eta istorioko Romeo eta Julieta hutsalduak lehen musua eman duten arte. Hor lo geratu naiz, edo nire buruari hori komentzitzen saiatu naiz behintzat. Lo.

ez argirik, ezta bizitzarik.

"Bigarrenengo depresibo hori aspaldian ikusi al dun? Hura hunan mutiko alaiarekin". "Aitaren heriotzaz geroztik ez din bururik jaso". "Tarteka etxean nabaritzen diñat, badakin, aldamenekoena dena entzuten dun". "Entzun diñat ia ez duela kalerik zapaltzen eta lanera joaten ere ez diñat barrundatzen". "A zer lastima. Pianoa ere mutu din. Lehen noiznahi musika hots batean egoten hunan, eta orain ezertxo ere ez". "Beno, ez naun ni kexatuko. Arantzazuko errosario lasaiago esaten diñat orain".

Ateko zirrikitutik entzun berri ditudan hitzek lausotu dituzte nire begiak. Atez ateko joko gaiztoaren protagonista izateak nire burua are gehiago gorrotatzea eragin du. Asteroko erosketak burutzeko asmoa banuen ere gaur etxean geratzea hobe izango dudala erabaki dut. Beste behin nire eguneroko janzkeran apaindu eta goizaren igaroan, iluntasunaren gordintasunean, babestu naiz. Pertsianak ireki ezean nire sumina gordetzen duten lau pareta hauetatik at bizitzarik ez dagoela autokomentzitzen naiz. Argirik ez, bizitzarik ez. Neu bakarrik nire ekosistema partikularrean, eta bertako aireak bi konposatu besterik ez: bakardadea eta atsekabea.

Egun alaiagoak gogoratu nahian pianoko tekla txuri-beltzetan atsedean hartu dute nire behatzek, baina notek ez dute doinurik. Geroxeago gaztetako maitasun konturen bat gogoratzen saiatu naiz etxepeko parkean bikote gazte bat elkar laztantzen ikusi ditudanean. Festetako *berbena*, zarata sentitzeko prest nago. Baina maitasunak ere ez dit gaurkoan xuxurlatze arin bat bederen igorri. Ezkutuko maitasun haiek, urteetako itukinak lagun, erabat desagertu dira. Ez dut muxurik, ez laztanik, ez zirrikirik sentitzen.

eta negu gordinean...

Hitzordu bat nahiko nuke, ahal den azkarren". "Libre dagoen lehen ordua martxoaren 20an izango litzateke, astelehena, eguerdiko hamabietan. Ondo datorkizu?" "Lehenago ezin da? Ez nago batere ondo". "Norbaitek huts egiten badu agian. Zer aseguru konpainia duzu?". "Ez. Iada ez dut Mapfreko aseguratik. Nere medikuarekin hitz egin dut eta gizarte segurantzatik berbideratua bezala kontsideratu beharko nauzue". "Beraz osasun aseguru pribaturik ez duzu?". "Ez". "Orduan badakizu kontsultagatik ehun eurotako ordainketa partekatua egin beharko duzula orduan". "Bai, bai. Medikua aurreratu dit". "Ados". "Eta Arruti psikologa oraindik ez da hasi?". "Ez, momentuz Vazquez eta Sola psikiatrak daude bakarrik. Enpresak ez digu ordezkorik bidaltzen". "Ahhh". "Pilula erregulariki hartzen jarraitzen duzu? Badira iada hiru hilabete errezetarik eskatu ez didazula". "Eee, bai bai, ia egunero". "Orduan martxoaren 20an hamabietan. Ez ahazteko mezu bat jasoko duzu sakelekoan egun batzuk lehenago".

Eta baiezkotako apal batekin telefonoa eskegi dut.

Duela hilabeteak arrebarekin izandako solasaldiaren ostean, profesional baten laguntza behar nuela esan zidan. Bost hilabete itxaron behar izan nituen lehen kontsultarako, eta hamabost minututako aitortza baino ez zen izan. Psikologoa ala psikiatra zen? Ez dakit. Arrebak nahiago du "buruko profesionala" esan. Baina seudonimo horren azpian arazoa eta kausa bera: ni.

"Ahhh eta mesedez ama ez dadila enteratu. Badakizu, aita osasunez kaxkar dabilela eta badu nahiko. Orain ez du beste buruhausterik behar".

Baina bera laster jabetu zen nire animo apalez. Haren aholkuak aspaldian ahaztuta banituen ere irrifarra ateratzea lortu zuen. "Aitaren aholaldietan, eta goibel sentitzen naizen bakoitzean, mezatara joan eta han aurkitzen dut sosegua" esan zidan nire eskuak bereetan bilduz. "Ez dizu kalterik egingo maitea". Nire fedea, inoiz izan badut, aspaldian egin zuen ihes. Jainkoak bere paradisuak ateak giltzapetuta ditu niretzat eta Satanak dut zain. Gainera, aldameneko horren iluntzetako errosario santuak eguneko zulorik sakon eta beltzenean sartuarazten nau.

Aurreko astean, herenegun, atzo, ia egunero, nire buruari proposamen bera egiten diot: datorren astean bisitatuko dudako "buruko profesional" horrek eta bere litio pilulek nire bizitzako zutabeak berreraikitzea lortzen badute, taulako errege, erregina, zaldunak, peoiak, ... denak ahaztu eta xake partida berri bat hasiko dudala. Baina mugimendu guztiek "xake materia" bideratzen naute. Jokoa hasi aurretiko partida galdua behin eta berriz.

Ustezko loraldia?

Kalera irteteko ausardiaz loratu da eguna. Hasi gabeko musukoen kaxa ireki eta jendartean galdu naiz. Kalek kale, aspaldian bisitatu ez ditudan bazterrak berreskuratu ditut. Parkean ikusten ditudan agureen bakarriketak erakarrita ibaiertzeko petrilean eseri naiz, konpainia gogoko dudala adierazi nahian.

PROSA

Berokiak nahikoa berotzen ez duen unea iristean etxera itzultzeko jomuga jarri diot neure buruari. Bidean gaztaroko lagun bat ikusi dut haur txiki pare batekin baina ezikusia egin diot. Handik metro gutxitara betiko adiskideak taberna atarian zuritoak sostengatzen. Baina berehala aldendu naiz, musukoak aurpegiaren hiru-laurdenak estaltzen didanaren laguntzaz *"gaur ez da eguna"* pentsatuz.

Burua makurtuta espaloiko arrakaletan nire irudi geometriko hautsiak ditut bidelagun. Eta azken eguzki errainuekin batera maindire gris ximurtuetan ezkutatu naiz.

Bai zera. Betirako agurra.

Maitasuna. Adiskideak. Familia. Dirua. Ni. Bizitzaren balantza erregulatzen duten pisutxoen erreflexu eginez esnatu naiz. Goizeko laurak dira. Osteguna.

Autosuntsitze honek erretzen nauen bitartean, pianoa estaltzen duen maindirea lurretik jaso eta hilotzari estalkia eman nahian nabil. Haserako bi akorde galduak. Iluntasuna. Hotza. Mutiko txiki bat dago pianora ezin ailegatuz eta lau nota errepikatuz. Behin eta berriz, lau nota berberak. Do bemolaren oldarkortasunak La-ren irmotasuna kontrajartzen du, Re eta Si atzeko planoan besarkatzen diren bitartean. Pixkanaka lau soinu horiek harmonia konplexuago baten bidea irekitzen dute eta haurrari bibote lotsati bat irten zaio. Entzuna dut doinu hori, Debussyren Claro de Luna. Antzeztoki txiki batean gizon hark azken emanaldia eskaintzen du amaren eta arrebaren aurrean. Badaki azkenekoa dela. Melodiak jarraitzen du.

Begiak ireki eta iada nire behatzek ez dute pianoa laztantzen. Egongela hankaz gora dago, botilak han, kristal hautsiak hemen.

Pixkanaka pianoaren teklak askatuz doaz. Iada ez dute soinurik. Tekla guztiak solte ditut hatzaparretan. Eta den-denak kabitzen zaizkit. Txuriak eta beltzak. Bakoitzak du berezkoa mugimendua. Ez elkarrekin, ezta nirekin ere, ez dira koordinatuak. Mutuak dira.

Eta haizearen igaroan denak irentsi ditut. Ezerezaren zaporean oihuak isildu dira.